

## Kultur ikuskizunak eta ekoizpenak. EAE

### Definizioa

Euskal Autonomia Erkidegoan, kultura-ekoizpenen berri ematen du adierazle honek, eta beraietan euskarak duen pisua neurtzen du.

### Hedadura

Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)

### Aldagaiak eta kategoriak

- **Ikuskizunak eta ekoizpena:**
  - **Ekoiztako ikuskizun eszenikoak:** antzerkia eta dantza.
  - **Programatutako emanaldi eszenikoak:** antzokiak eta jaialdiak.
  - **Argitaletxeen ekoizpenak:** argitaletxeek argitaratutako ale kopurua (nobedadeak eta berrargitalpenak).
  - **Disko ekoizpenak:** disko kopurua (nobedadeak eta berrargitalpenak).
  - **Ikus-entzunezkoen ekoizpenak :** zinema, dokumentala, publizitatea, telebista eta espezializatu gabeak
- **Hizkuntza:**
  - Euskaraz
  - Euskaraz eta gaztelaniaz
  - Gaztelaniaz
  - Beste batzuk
  - **Instrumentala:** soilik disko ekoizpenari dagokio

**Iturria : Kulturaren Euskal Behatokia. EAEko arteen eta kultura industrien estatistika.**

### Iturriaren ezaugarriak

Kulturaren Euskal Behatokia 2006an sortu zen, Kulturaren Euskal Planaren bidez, Kulturaren Euskal Kontseiluak 2004ko maiatzaren 20an onartua eta Eusko Jaurlaritzak 2004ko irailaren 21eko gobernu-batzordean onartua.

Kulturaren Euskal Planak bere ardatz estrategikoen artean EAEko kulturaren egoera eta bilakaerari buruz sistematikoki informatzeko eta segimendua egiteko sistema eta sektorekako plan estrategikoak eta egoeraren azterketak egitea ezarri zuen.

Hona hemen adierazle honetan jasotako **ikuskizunak eta ekoizpena** aldagaiaren parte diren kategoriei buruzko zenbait definizio eta informazio osagarri:

#### Antzokiak:

azpiegitura iraunkorrak dira, mota guztietako produkzio eszenikoetako emanaldietarako beharrezko baldintza teknikoak biltzen dituztenak. Zentsua egiteko honako irizpide hauek ezarri dira:

- Nagusiki ikuskizun eszeniko profesionalak programatzen dituzten antzokiak hartu dira aintzat. Programazio amateurreko zati osagarri bat badagoela aitortu den kasuetan, programazio hori kontuan hartu da jarduera kontabilizatzerakoan. Ikuskizun amateurrak bakarrik programatzen dituzten antzokiak estatistikatik kanpo geratu dira.

	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Urtean zehar gutxienez 3 emanaldi profesional programatu dituzten antzokiak soilik hartu dira kontuan.</li> <li>- Antzokien jardueraren barruan, arte eszenikoetako eta musikaren alorretako programazioa soilik hartu da kontuan; aitzitik, zinemaren, hitzaldien, bileren eta hainbat ekitaldiren programazioak kanpo geratu dira.</li> </ul> <p><b>Jaialdiak:</b> programazio eszenikoak dira, normalean genero jakin baten inguruan egituratuta daudenak, iraupen mugatua dutenak, eta normalean hainbat gunetan (antzokiak, kultura-zentroak, kaleak eta plazak, elizak eta abar) eskaintzen direnak. Zentsua egiteko honako irizpide hauek ezarri dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Arte eszenikoetako jaialdiak soilik hartu dira kontuan, nahiz eta horietako batzuek kontzerturen bat edo musika-jardueraren bat erantsi dezaketen osagarri gisa. Hortaz, musikaren alorreko programazioa soilik egiten duten jaialdiak ez dira kontuan hartu.</li> </ul> <p><b>Argitaletxeak:</b> EAEn kokatutako erakunde pribatuak dira, edozein euskarritan mota guztietako liburuak argitaratzen dituztenak. Aztertutako urtean, gutxienez 4 liburu argitaratu dituzten agenteak bakarrik bildu dira zentsuan. Aldiz, prentsa, aldizkariak edo bestelako aldizkako argitalpenak soilik argitaratzen dituzten argitaletxeak ez dira aintzat hartu.</p> <p><b>Diskoetxeak:</b> EAEn egoitza duten erakunde pribatuak dira, bereziki edozein motatako fonogramak edozein euskarritan produzitzen dihardutenak. Azken 2 urteetan, gutxienez 3 disko-lan argitaratu eta urtean 65.000 €.tik gorako diru-sarrerak eduki dituzten agenteak baino ez dira aintzat hartu.</p> <p><b>Ikus-entzunezko produkzio-etxeak:</b> EAEn kokatutako erakunde publiko eta pribatu enpresarialak dira, edozein euskarritan garatutako ikus-entzunezko lan bat garatzetik merkaturatzera bitartean doazen prozesu guztien koordinazioa eta erantzukizuna hartzen dutenak. Azken 3 urteetan gutxienez lan bat produzitu duten produkzio-etxeak besterik ez dira bildu zentsuan.</p>
<b>Iturriaren arduraduna</b>	Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Kulturaren Euskal Behatokia (Eusko Jaurlaritz).
<b>Hasierako datua eta maiztasuna</b>	<p><b>Lehen datua:</b> 2009</p> <p><b>Maiztasuna:</b> bi urterik behin</p>
<b>Informazio osagarria</b>	
<p>Oinarrizko Adierazleak. EAeko arteen eta kultura-industrien estatistika. 2017ko Uztaila:  <a href="http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/estadistica/keb_arte_industriak/eu_arte_ind/adjuntos/Arte_Kultura_industriak_oinarrizko_adierazleak_2007_2015.pdf">http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/estadistica/keb_arte_industriak/eu_arte_ind/adjuntos/Arte_Kultura_industriak_oinarrizko_adierazleak_2007_2015.pdf</a></p> <p>Kulturaren Euskal Behatokia. Estatistika adierazleen kontsulta, sektoreka:  <a href="http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-19130/eu/">http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-19130/eu/</a></p>	